



Idazkaritza-Kontuhartzaitza

2021/05/11n EGINDAKO EZOHIKO
UDALBATZA.

SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL
PLENO DE LA CORPORACIÓN. Día
11/05/2021.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Jose Ramon Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Maite Uribe Beristain
Purificación Regidor Varela
Antonio Regaño Sájeras
Josu Ezkurdia Santamaría
Ana Belén de Castro Ramos
Eluska Irazu Henández
Nestor Arana Arexolaleiba
Dorleta Sologaitoa Aguiriano
Leire San Vicente Carrillo

Idazkaria

EDURNE ITURBE LASKURAIN

Eskoriatzan, 2021eko maiatzaren 11n, arratsaldeko 17:30ean, Jose Ramon Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela, eta goian aipatutakoen parte hartzearekin, telematikoki bildu da Ezohiko Udalbatza, gai zerrendan zehaztutako gaietarako buruz hitz egiteko. Ez da etorri Ander Errarte.

En Eskoriatza, siendo las 17:30 horas del día 11 de mayo de 2021, quedó constituido telemáticamente el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde-Presidente Jose Ramon Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Ander Errarte.

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAABKS8M.TUEa>

Ez Ohiko Osoko Bilkura
Pleno Extraordinaria
2021/05/11

1.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Udalaren Irisgarritasun Plana (2008ko Irisgarritasun Plana eta 2021eko handitzea jasotzen dituen).

Eusko Legebiltzarrak irisgarritasuna sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legea onartu zuen, hiri-ingurunearen, espazio publikoen, eraikinen, garraiobideen eta komunikazio-sistemen irisgarritasuna bermatzeko, pertsona guztiek modu autonomoan erabil eta goza dezaten, eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikazio-zailtasunak edo beste edozein muga psikiko edo sentzorial, aldi baterakoa edo iraunkorra dutenek.

Botere publikoei dagokie legea eraginkortasunez bete dadin beharrezkoak diren ekintza positiboko neurriak har daitezten sustatzea, bai eta, hala badagokio, pertsonen bizi-kalitatea hobetzen lagunduko duten laguntza teknikoak erabil daitezten sustatzea ere.

Irisgarritasuna Sustatzeko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 2. artikuluekin bat etorritik, legea aplikagarri zaie Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan nortasun fisiko edo juridikoa, publikoa zein pribatua, duen edozein subjektuk hirigintza, eraikuntza, garraio eta komunikazio arloan egiten dituen jarduerara jartzei.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak ingurune irisgarriak izateko eskubidea aitortzen die desgaitasuna duten pertsonari, joan-etorriak eta parte-hartzea ez oztokatze, ez mugatzeko (43.1.d artikulua).

Legeak berak ezartzen du edozein motatako pertsonak eskubidea duela administrazio publikoek ematen duten informazioa eskuratzeko, eta, era berean, edozein desgaitasun mota duten pertsonak informazioa eskuratzeko duen aukera babesten du (50.7 artikulua).

Udal honek 2008ko irailtik Irisgarritasuneko Udal Plana dauka idatzita, eta plan hori zabaldu egin behar izan da egungo premien eta lehentasunen isla izan dadin.

Beharrezkotzat jotzen da plan hori jendaurrean jartzea, edonork, oro har, eta desgaitasunen bat dutenek, bereziki, egoki irizitako iradokizunak egin ditzaten.

Irisgarritasun Plana onartzeak inbertsioak eta epe ertain edo luzeko jarduketak egitea eskatzen duenez, Udalbatzarrak onartu behar du plana.

Horiek horrela, eta Hirigintza, Mugikortasuna eta Ingurumen batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, EH BILDUKO bertaratutako 3 zinegotziak abstenituta eta gainerako zinegotziek alde bozkatuta (EAJ/PNVko 6 eta EEEko 1), honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Hasiera batean onartzea Eskoriatzako Irisgarritasun Plana (2008ko Irisgarritasun Plana eta 2021eko handitzea jasotzen dituen), aurrez azaldutako arrazoiengatik, eta ondorio guztietarako hemen errepikatutzat jotzen direnak.

BIGARRENA.- 20 egunez jendaurrean jartzea, iragarki-oholean, udalaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki baten bidez, interesdunek espedientea azter dezaten eta egoki irizitako alegazioak edota iradokizunak egin ditzaten. Jendaurreko informazio-aldian alegaziorik edo iradokizunik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira, bestelako erabakirik hartu behar izan gabe.

BOTOEN AZALPENA:

Nestor Arana: Hirigintza batzordean ezetz bozkatu genuen, baina gaur abstenitu egingo gara. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu aurrekontuetarako egin genuen

proposamenetako bat, Intxaurtxuetako arrapala, kontuan hartzeagatik. Horregatik, "ezezkotik" "abstentziora" pasatu gara. Eta, zergatik ez garen "baiezkoa" pasatzen? ba, hainbat gai eguneratu behar direla uste dugulako. Josuk esan duen bezala, 2008an egindako plana da, eta 3 jarduerarekin handitu da. Hala ere, dokumentuan aipatzen den araudi asko aldatu egin dira; bertan aipatzen dira testu hori egin zenean kontuan hartu ziren arauak, eta horietako asko aldatu egin dira, hala nola, 19/09a, 26/11 eta 8/13a. Ez dut uste horrek eragin handirik duenik, baina kontuan hartu beharreko datua dela uste dugu. Irisgarritasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko zenbait Errege Dekretu ere badaude, hala nola, 77/2010a eta 2979/2011. Uste dut, gutxienez, araudi hori guztia berrikusi beharko litzatekeela, zer aldaketa gertatu diren ikusteko. Bestalde, herritarren parte-hartzearen falta sumatzen dugu. Badakigu jendaurrean jarriko dela 20 egunez, baina uste dugu ez dela nahikoa, bai edukiaren bolumenagatik, bai jendea ez delako benetan enteratuko jendaurrean egongo direnik. Bestalde, parte hartzeko prozesu bat egin du Euskadi Lagunkoiak, eta uste dut hemendik eskerrak eman beharko genizkiokeela talde horri egindako lanagatik, eta aipuren bat egin beharko genukeela irisgarritasun-plan hau egiteko hura kontuan hartu dela esanez. Horregatik, gu abstenitu egingo gara.

Josu Ezkurdia: eskertzen dugu aurrekontuak negoziatzeko orduan egin zenuten proposamena, baina zoritxarrez ezin izan genuen zuekin inolako akordiorik lortu, bereziki, zuek ezetz esan zenutelako. Baina esan behar dut ez dugula proiektu hori planean jarri zuek eskatu duzuelako, hasieratik hainbat herritarrek eskatu digutelako baizik. Ez hori bakarrik, baita Sorautzeko oinezkoentzako sarbidea ere. Planean sartzen ditugun 3 proiektuak herritarrek eskatutakoak dira. Hori esanda, parte-hartzea aipatu duzu, eta nik uste dut hori baino parte-hartze handiagoa ezin dela egon. Are gehiago, ez dugu espero 20 egun horietan bizilagunek dokumentua ikustea, baizik eta egokitzat jotzen dituzten ekarpenak egitea, agintaldi honetan eta aurreko agintaldian egin duten bezala. Gu entzuteko prest gaude, eta proposamenak interesgarriak badira, aurrera eramateko ere bai. Uste dut oso argi dagoela sartu dugun aldaketa; irisgarritasun-plana oso lan teknikoa da. Edonon irisgarritasun-arazoak dituen edonork guregana jo besterik ez du, eta ez plan hau martxan dagoelako edo ez dagoelako, baizik eta edozein unetan. Eta hori da kontua, hain zuzen ere: edozein pertsonak iradokizunak egin ahal izatea eta guk iradokizun horiek sartzen joan ahal izatea; ez da araudi-kontua, irakurri beharrekoa, baizik eta iradokizunak egitea eta proposamenak aurkeztea. Eta esan behar da gaur arte bi proposamen bildu ditugula, eta askoz gehiago biltzea espero dugula.

Nestor Arana: ez ditut ulertzen ezohiko bilkura honetarako arrazoiak. Dena hain ongi planifikatuta bazegoen lehendik, eta herritarren diru asko gastatu behar badugu, ez dugu presaka eta korrika egindako saio hau ulertzen.

Josu Ezkurdia: ba, deialdian justifikatuta geratu denez, Eusko Jaurlaritzak urtero deitzen dituen laguntzak eskuratu ahal izateko. Laguntza horiek jaso ahal izateko, proiektuek planean sartuta egon behar dute, gutxieneko aurrerapen batekin. Arrazoiak ulertzen ez badituzue, arazo bat duzue.

Nestor: ez, hori ulertzen dugu. Ez duguna ulertzen da aldez aurretik aurreikusitako jarduketak badira, plana lehenago aldatu ez izana.

Eta beste gairik ez dagoenez, 17:45ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- Aprobación inicialmente el Plan de Accesibilidad del Municipio de Eskoriatza (Plan de Accesibilidad de 2008 con ampliación de 2021)

Considerando que el Parlamento Vasco aprobó Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de la accesibilidad, con el objeto garantizar la accesibilidad del entorno urbano, de los espacios públicos, de los edificios, de los medios de transporte y de los sistemas de comunicación para su uso y disfrute de forma autónoma por todas las personas y en particular por aquellas con movilidad reducida, dificultades de comunicación o cualquier otra limitación psíquica o sensorial, de carácter temporal o permanente.

Considerando que corresponde a los Poderes Públicos promover la adopción de las medidas de acción positiva necesarias para la efectiva aplicación de la Ley, así como en su caso la utilización de las ayudas técnicas que contribuyan a mejorar la calidad de vida de las personas.

Considerando que, de conformidad con su artículo 2 de la Ley 20/1997, de 4 de diciembre, para la promoción de la accesibilidad, es de aplicación, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a todas las actuaciones en materia de urbanismo, edificación, transporte y comunicación realizadas por cualquier sujeto con personalidad física o jurídica, pública o privada.

Considerando que la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, reconoce a las personas con discapacidad el derecho a disponer de entornos accesibles, que no supongan barreras ni restricciones al tránsito y a la participación (art. 43.1.d)

Considerando que la misma Ley establece el derecho de cualquier tipo de persona a acceder a la información que se provea por las Administraciones Públicas, salvaguardando igualmente el acceso a la información a las personas que padezcan cualquier tipo de discapacidad (art.50.7) Resultando que este Ayuntamiento tiene redactado desde septiembre de 2008 un Plan Municipal de Accesibilidad, Plan que ha tenido que ser ampliado para que sea reflejo de las actuales necesidades y prioridades.

Resultando que se considera necesario someter dicho Plan a exposición pública para que todas las personas en general y aquellas que tengan alguna discapacidad en particular puedan hacer las sugerencias que consideren oportunas.

Considerando que, en la medida en que la aprobación de Plan de Accesibilidad implica la realización de inversiones y de actuaciones a medio o largo plazo, debe ser aprobado por el Ayuntamiento Pleno.

Vista la propuesta de la Comisión Informativa de Urbanismo, Movilidad y Medio Ambiente, el Pleno, con la abstención de los 3 concejales presentes de EHBILDU y el voto favorable del resto de concejales (6 de EAJ/PNV y 1 de EEE) ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar inicialmente el Plan de Accesibilidad del Municipio de Eskoriatza (que contempla el Plan de Accesibilidad de 2008 con su ampliación de 2021) por los motivos anteriormente expuestos y que se tienen aquí por reproducidos a todos sus efectos.

SEGUNDO.- Someterlo a información pública por plazo de 20 días mediante anuncio publicado en el Tablón de Anuncios, en la WEB municipal y en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, al objeto de que los interesados puedan examinar el expediente y deducir cuantas alegaciones y/o sugerencias estimen pertinentes. Si durante el periodo de información pública no se presenta

alegación o sugerencia alguna quedará definitivamente aprobado sin necesidad de posterior acuerdo.

EXPLICACIONES DE VOTO:

Nestor Arana: En la comisión de urbanismo votamos que no, pero hoy nos abstendremos. Antes de nada queremos agradecer que se contemple una de nuestras propuestas a los presupuestos, la rampa de Intxaurtxueta. Y por eso nos hemos pasado del “no” a la “abstención”. Por qué no pasamos al “sí”, porque creemos que hay varias cuestiones que han de actualizarse. Como ha dicho Josu es un plan elaborado en 2008 que se ha ampliado con 3 actuaciones. No obstante, mucha de la normativa que se cita en el documento ha sido objeto de cambio; en el mismo se citan las normas que se tuvieron en cuenta cuando se elaboró dicho texto y muchas de ellas han cambiado, como es el caso de la 19/09, 26/11 eta 8/13. No creo que esto tenga mucha incidencia, pero si consideramos que es un dato a tener en cuenta. También hay varios Reales Decretos sobre accesibilidad y no discriminación, como 77/2010 y 2979/2011. Creo que como mínimo debiera de hacerse un repaso de toda esa normativa para ver qué cambios se han producido. Y por otro lado echamos en falta la participación ciudadana. Sabemos que se expondrá al público por plazo de 20 días, pero creemos que no es suficiente tanto por el volumen del contenido como por el hecho de que realmente se enteren que está a disposición del público. Por otro lado, ya ha habido un proceso participativo a instancia de EUSKADI LAGUNKOIA y creo que desde aquí debiéramos de agradecer a ese grupo el trabajo realizado y hacer alguna mención de que se ha tenido en cuenta el mismo para elaborar este plan de accesibilidad. Por todo eso, nosotros nos abstendremos.

Josu Ezkurdia: Agradecemos la propuesta que hicisteis a la hora de negociar los presupuestos, pero por desgracia no pudimos llegar a ningún acuerdo con vosotros, y especialmente porque vosotros dijisteis que no. Pero he de decir que no hemos puesto ese proyecto en el Plan porque vosotros lo hayáis pedido sino porque son varios los ciudadanos que nos lo venían pidiendo desde un principio. No solo ese, sino también el acceso peatonal de Sorautz. Los 3 proyectos que incluimos al plan son proyectos demandados por los vecinos. Dicho eso, has mencionado la participación y yo creo que más participación que esa no puede haber. Y es más, tampoco esperamos que en esos 20 días los vecinos vean el documento, sino que hagan las aportaciones que estimen pertinentes como lo han hecho en esta y en la anterior legislatura. Nosotros estamos en disposición de escuchar y si las propuesta son de interés, también estamos en disposición de llevarlas adelante. Creo que es muy claro el cambio que hemos introducido; el plan de accesibilidad es un trabajo muy técnico. Cualquier persona que tenga en cualquier sitio problemas de accesibilidad no tiene mas que dirigirse a nosotros, y no porque este plan esté o no en marcha, sino en cualquier momento. Y es esa la cuestión, que cualquier pueda hacer sugerencias y que nosotros las podamos ir incluyendo; no es un cuestión de normativa, de tener que leer, sino que de hacer sugerencias y presentar propuestas. Y hay que decir que hoy es el día que ya hemos recogido dos propuestas y esperamos recoger muchas más.

Nestor Arana: No llego a entender las razones de esta sesión extraordinaria. Si todo estaban tan bien planificado de antes, y si vamos a gastar un dinero importante de los vecinos, no entendemos esta sesión de prisa y corriendo.

Josu Ezkurdia: Pues como ya ha quedado justificado en la convocatoria, para poder acceder a las ayudas anuales que convoca el Gobierno Vasco. Para poder acceder a esas ayudas los proyectos han de estar incluidos en el Plan con una antelación mínima. Si no entendéis las razones tenéis un problema.

Nestor: No, si eso ya entendemos. Lo que no entendemos es que si son actuaciones previstas desde antes no se haya modificado el Plan con mayor antelación

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 17:45 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.